




Prentsa-oharra, 2011/05/26koa

ETXEGINTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA 2011ko 1. hiruhilekoa

2011ko lehen hiruhilekoan oin berriko etxebizitzak eraikitzeke aurreikuspena hazi egin da, % 59,2 aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 207 2010eko lehen hiruhilekoarekiko.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak egindako Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2011ko lehen hiruhilekoan oin berriko 2.789 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita, aurreko hiruhilekoan baino 1.037 etxebizitza gehiago, hau da, % 59,2 gehiago. 2010eko lehen hiruhilekoan alderatuz gero, oin berriko 1.881 etxebizitza gehiago aurreikusi dira, % 207 gehiago.

Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera.
Euskal Autonomia Erkidegoa. 1998-2011.



Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Bizkaian (1.096 etxebizitza) 2011ko lehen hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidego osoan eraikitzea aurreikusita dagoen oin berriko etxebizitzaren % 39,3 eraikiko dira. Horrek 2010eko laugarren hiruhilekoan baino % 77,9 gehiago esan nahi du, eta 2010eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, % 407,4 gehiago.



Arabak jarraitzen dio, 1.056 etxebizitzarekin, aurreikusita dauden oin berriko etxebizitza guztien % 37,9. Lurralde horretan % 279,9ko hazkundera izan da, aurreko urteko hiruhileko berarekiko, eta % 32,7ko hazkundera, aurreko hiruhilekoarekiko.

Bestalde, Gipuzkoan oin berriko 637 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da, guztizkoaren % 22,8, aurreko hiruhilekoan baino % 87,4 gehiago, eta iazko hiruhileko berean baino % 53,9 gehiago.

Arabako Lautadan egingo dira Araban egin asmo diren ia etxebizitza guztiak, % 97,9, Bilboko metropolian Bizkaikoen % 76,3, eta Donostian, Gipuzkoakoen % 12,7.

Gasteizen oin berriko 1.029 etxebizitza eraikiko direla aurreikusten da, Euskal Autonomia Erkidego osokoen % 36,9 eta Arabakoen % 97,4, eta ondoren honako hauek daude: Bilbao, 238 etxebizitzarekin –Erkidegokoen % 8,5 – eta Irun, 223ekin –% 8,0–. Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietatik, soilik 54tan –5etik batean pasatxo– aurreikusten zen etxebizitza berriak eraikiko zirela.

Bestalde, hiruhileko honetan aurreikusitako 125 birgaitzeak 2010eko hiruhileko berean aurreikusitako 179 birgaitzeak baino % 30,2 gutxiago izan dira; baina aurreko hiruhilekoan aurreikusitakoekin alderatuz gero, % 31,6 gehiago.

Euskadiko udalek emandako obra handiko lizentzia kopurua %15,2 igo da 2011ko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta %33,5 2010eko aldi berarekin alderatuta.

Udalek onartzen dituzten obra handiko lizentzien kopurua (eraikuntza ez publikoaren sektorearen egoeraren adierazle gisa erabili ohi da) 734koa izan zen 2011ko lehen hiruhilekoan. Hau da, aurreko hiruhilekoan baino % 15,2 gehiago, eta urtebete lehenago baino % 33,5 gehiago.

Hamarretik zazpi baino gehiago –% 71,9– birgaitze-lizentziak dira; % 26,2 oin berriko eraikinetarako, eta % 1,9 eraisketa-lanak egiteko soilik –guztira 14–.

Bizkaian obra handiko 267 lizentzia eman dira, Araban 198, eta Gipuzkoan, 63. Azken horren kasuan, oin berriko eraikinak egiteko lizentziak lizentzia guztien % 41,9 dira, eta Arabaren eta Bizkaiaaren kasuan, aldiz, % 23,8 eta % 22,7 hurrenez hurren.

Arabak % 21,7 igo dira obra handietarako lizentziak, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 19,6 2010eko laugarrenarekin alderatuz gero. Bizkaian hazkundera %6,7ekoa eta % 58,2koa da. Azkenik, Gipuzkoan % 30 lizentzia gehiago eman dira, aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 11,4 gehiago urtebeteko epea hartuta.



ETXEBIZITZA, HERRI LAN
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistikarako Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

Arabako Lautadan eman dira Arabako lizentzien %77,7. Ehuneko hori Bilbo Handiak Bizkaia-eretik duen ehunetik -% 70,1- hurbil dago; aitzitik, Donostialdean Gipuzkoako lizentzia guztien % 45,3 baino ez dira eman.

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA EAE-N		2011ko 1. hiruilekoa		Aurreko hiruilekoarekiko aldea		Aurreko urteko hiruileko berarekiko aldea	
OBRA HANDIETARAKO LIZENTZIAK		Kopurua	%	Kopurua	Aldea (%)	Kopurua	Aldea (%)
EAE	Guztira	734	100,0	97	15,2	184	33,5
	Oin berriko eraikinak	192	26,2	41	27,2	31	19,3
	Birgaitzeak	528	71,9	59	12,6	158	42,7
	Eraispenak	14	1,9	-3	-17,6	-5	-26,3
Araba	Guztira	269	100,0	48	21,7	44	19,6
	Oin berriko eraikinak	64	23,8	14	28,0	4	6,7
	Birgaitzeak	198	73,6	34	20,7	41	26,1
	Eraispenak	7	2,6	0	0,0	-1	-12,5
Bizkaia	Guztira	348	100,0	22	6,7	128	58,2
	Oin berriko eraikinak	79	22,7	14	21,5	16	25,4
	Birgaitzeak	267	76,7	12	4,7	120	81,6
	Eraispenak	2	0,6	-4	-66,7	-8	-80,0
Gipuzkoa	Guztira	117	100,0	27	30,0	12	11,4
	Oin berriko eraikinak	49	41,9	13	36,1	11	28,9
	Birgaitzeak	63	53,8	13	26,0	-3	-4,5
	Eraispenak	5	4,3	1	25,0	4	400,0
AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA							
EAE	Guztira	2.914	100,0	1067	57,8	1827	168,1
	Oin berriko eraikinak	2.789	95,7	1037	59,2	1881	207,2
	Birgaitzeak	125	4,3	30	31,6	-54	-30,2
Araba	Guztira	1.088	100,0	264	32,0	754	225,7
	Oin berriko eraikinak	1.056	97,1	260	32,7	778	279,9
	Birgaitzeak	32	2,9	4	14,3	-24	-42,9
Bizkaia	Guztira	1.150	100,0	490	74,2	887	337,3
	Oin berriko eraikinak	1.096	95,3	480	77,9	880	407,4
	Birgaitzeak	54	4,7	10	22,7	7	14,9
Gipuzkoa	Guztira	676	100,0	313	86,2	186	38,0
	Oin berriko eraikinak	637	94,2	297	87,4	223	53,9
	Birgaitzeak	39	5,8	16	69,6	-37	-48,7

Iturria: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Edurne Domingorena

Tel.: +34-945-01 97 12 Fax.: +34-945-01 64 07

Prentsa-oharrak interneten: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.

WEBGUNEAK: <http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-429/eu/>.